

2017 urtean herrian emango diren Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan aplikatu beharreko irizpideen onarpena.

Gaurko egunez Alkate jaunak, jarduneko Idazkaria naizen honen aurrean, honako dekretu hau eman du

95/17 DEKRETUA.- Horretarako ireki den espedientearen berri eman ondoren eta Gizarte Langileak 2017ko martxoaren 21ean egindako txostena ikusirik.

Aplika daitekeen legeriak ematen dizkidan eskumenak erabiliz eta, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan aurreikusita dagoen goragokoak eskumenak bereganatzeko ahalmena baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Gizarte larrialdietarako 2017 urteko laguntzak baloratzeko aplikatuko diren irizpideak onartzea.

1.- Urteko gehienezko zenbatekoak.

a) Alokairu gastuengatik:

1.- Bizikidetzta-unitate bakarreko etxebizitzaren kasuan, errentari bakarra, ko-arrendatuta edo azpiarrendatuta badaude, gehienezko laguntza **250** eurokoa izango da, etxebizitzaren alokairuaren prezioaren %70etik gorakoa ezin delarik izan.

2.- Etxebizitza ko-arrendatuta badago edo azpirrendamenduak badaude etxe horretan, ez dira bi eskaera baino gehiago onartuko, indarrean dagoen Etxebizitzagatiko Prestazio Osagarriaren arautegian ezarritakoaz bat etorritik, zenbatekoa bizikidetzta-unitateen artean banatuko delarik. Bi bizikidetzta-unitateentzako muga **125** euro izango da hilean, bizikidetzta-unitate bakoitzeko, bien artean ezin dutelarik gainditu etxebizitzaren prezioaren %80.

3.- Etxebizitzak ostatatze edo apopilotza kontratuak baditu, kontratu mota horrekin bi eskaera baino ezin dira egin, aurrekoarekin bat etorritik. Laguntzaren muga hilean **125** eurokoa izango da bizikidetzta-unitate bakoitzeko, arau orokor gisa.

4.- Legalki eraturiko hotel, hotel-apartamendu eta pentsioetan biziz gero, muga **250** eurotan kokatuko da, prezioaren %70 ezin delarik gainditu.

5.- Eusko Jaurlaritzak edo beste Herri Administrazio batzuk edo horien mende dauden erakundeak emandako Babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan ez da ordainduko alokairuagatik Gizarte Larrialdietarako Laguntza, oinarrizko gizarte zerbitzuak antzemandako salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta benetako beharrez dagoela justifikatuta.

b) Etxebizitza bat edo ostatua eskuratzeko, gizarte larrialdi egoeraren aurretik egindako **kredituak amortizatze eta interesen gastuengatik**, hilean **250** euroraino, hileko interesen eta kredituaren hileko amortizazioaren %70etik gorakoa ezin delarik izan.

Kontzeptu honengatik edo ohiko etxebizitza eta ostatua ordaintzeko kredituagatik Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko gehienezko denbora ez da 5 urte baino gehiagokoa izango, elkarbizitza unitatea existitzen den aldi osoko batura modura. Muga hau ez zaio aplikatuko erretiro-pentsioaren titularren pertsoneri.

Eusko Jaurlaritzak edo beste Herri Administrazio batzuk edo horien mende dauden erakundeak emandako Babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan ez da ordainduko kredituak amortizatze eta interesen gastuengatik Gizarte Larrialdietarako Laguntza, oinarrizko gizarte zerbitzuak antzemandako salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta benetako beharrez dagoela justifikatuta.

c) Energia gastuengatik, hots, elektrizitate, gas edo etxean erabilitako beste edozein erregairen horniduragatik. Urte erdiko gastuari dagokion zenbatekoa emango da, urtean 500 euroko mugarekin. Bi elkarbizitza unitate ekonomiko independenteen kasuan, bakoitzari **250** euroraino urtean.

d) Ohiko etxebizitza edo ostatua izateko eta mantentzeko behar diren beste gastu batzuegatik, (kontzeptu honetan sartzen dira ura, zaborra, estolderia, hiri- edo landa-higiezinaren gaineko zerga, jabeakide erkidegoaren kuotak eta etxebizitza-aseguruaren gastuak), Urte erdiko gastuari dagokion zenbatekoa emango da, urtean 500 euroko mugarekin. Bi elkarbizitza unitate ekonomiko independenteen kasuan, bakoitzari **250** euroraino urtean.

e) Altzari eta "lerro zuriko" etxetresna elektrikoaren gastuengatik, 0 euro urtean.

f) Etxebizitzaren oinarrizko moldaketa, konponketa eta instalazioengatik gastuak. Salbuespen gisa urte bakoitzeko 1.000 euroraino ordaindu daitezke honako kasuetan:

Larrialdi eta urgentzia kasuetan. Kasu horiek baloratzeko etxebizitza bisitatuko du Gizarte Zerbitzuetako teknikariak, Osasun edo Hirigintzako Saileko teknikariek lagunduta.

Eraikinean egindako konponketa obrak direnean eta jabekide erkidegoak onartuta daudenean. Kasu honetan interesdunari obra aurrekontua eskatuko zaio, parte hartzearen kuotaren arabera ordaindu behar duen zenbatekoa eta obra-lizentzia. Halaber, derrigorrezkoa izango da familiak alde aurretik Eusko Jaurlaritzari egitea eskaera.

Bi elkarbizitza unitate ekonomiko independenteen kasuan, bakoitzari 500 euroraino urtean.

g) Oinarrizko beharrianetarako gastuengatik, 1.800 euro urtean.

Honako gastuak sartzen dira:

- Betaurrekoak, audifonoak, beste erakunde batzuk ordaintzen ez dituzten aparatu ortopedikoak, dentista-gastuak...
 - Betaurrekoentzat emango den gehienezko kopurua: monofokalentzat 150 euro eta bifokal-progresiboentzat 300 euroraino.
 - Tratamendu odontologikoentzat, 1.000 euroraino, inplanteak eta hortzak zuzentzeko aparatuak ez direlarik sartzen, osasun-arazoengatik ez badira jartzen).
 - Audifonoak, 1.000 euroraino.
- 6 urtetik gorako adin txikikoentzako estimulazio goiztiarreko tratamendua, txostenarekin justifikatuta: urtean 1.000 euro gehienez.
- Prestakuntza (matrikula/ joan-etorriak), justifikatuta daudenean gizarteratze helburuarekin. Gehienez, urtean 300 euro.
- Gizarte Zerbitzu Espezializatuek eskainitako programetarako joan-etorri gastuak (adin txikikoak, nerabe erasotzaileak, tratu txarrak nozitzen dituzten emakumeak ...), justifikatuta dauden kasuetan. Gehienez, urtean 300 euro.
- Elikadura, Gizarte Zerbitzuen txostenaren bidez justifikaturiko salbuespenezko egoeratan (SBE jasotzen ez dutenek eta SBE baino sarrera txikiagoak dituztenek). Urtean 1800 euro.

h) Aldez aurreko zorpetze gastuengatik, 3.000 euroraino urtean. Bi elkarbizitza unitate ekonomiko independenteen kasuan, bakoitzari 1500 euroraino urtean.

Aldez aurreko zorpetze gastuengatik urteko gehienezko diru-kopuruak, ez dira izango, kasu bakoitzea, aipatu kontzeptuentzat aurreikusitako gehienezko zenbatekoak.

2.- Dena den, artikuluko honetako 1. pasarteko a), b), c), d), e) eta f) ataletan agertzen diren kontzeptuengatik Gizarte Larrialdietarako Laguntza jasotzea ez da bateragarria Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzearekin.

3.- Eskaeren konkurrentzia eta Gizarte Larrialdietarako Laguntza eskatu dezaketen bizikidetzak unitateak. Gehienez etxebizitza bereko 2 bizikidetzak unitatek eskatu dezakete Gizarte Larrialdietarako Laguntza. Gizarte Larrialdietarako Laguntzarako bi eskaera baino gehiago badaude, lehenengo egin den eskaerari erantzungo zaio, Gizarte Zerbitzuek txosten batean beste irizpideren bat ez badute adierazten.

4.- Eskaera bakoitzari esleitu dakioken zenbatekoa.

Eskaera bakoitzari esleitu dakioken zenbatekoa era honetara kalkulatu da: Familia unitatearen sarreraren arabera kalkulaturiko portzentaje bat aplikatuko da Eusko Jaurlaritzaren aginduan kontzeptu bakoitzarentzat ezartzen den gehienezko zenbatekoaren gain edo benetan egindako gastuaren zenbatekoaren gain, gastua kontzeptu horregatik gehienezko zenbatekoa baino txikiagoa denean. (Eusko Jaurlaritzaren arautegiak kalkulua egiteko behar diren taulak ezarri ditu, bai biztanteria orokorrari dagokiona eta bai pentsionistei aplikatu dakiokiena).

5.- Gizarte Larrialdietarako Laguntza jaso ahal izateko ondare-muga.

Ohiko etxebizitzaren balioa zenbatu gabe, baldin eta balio izugarriko etxebizitza bat ez bada, ondare-muga 10.000 eurotan ezarriko da.

6.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzagatik familia batek urtean jaso dezakeen gehienezko zenbatekoa.

Urtean jaso ahal den Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren zenbatekoa, ez da honako baturaren emaitzaren zenbatekoa baino handiagoa izango: Sarrerak Bermatzeko Errenta +Pentsio ez kontributiboa + Etxebizitzagatik prestazio osagarria + 1800 euro/ urte. Hau da:

Biztanleria oro har

BUEI 1 kide. Muga 13.002 €/urte

BUEI 2 kide. Muga 15.332 €/urte

BUEI 3 kide edo gehiago. Muga 16.450 €/urte

Pentsionistak:

BUEI 1 kide. Muga 14.120 €/urte

BUEI 2 kide. Muga 16.450 €/urte

BUEI 3 kide edo gehiago. Muga 17.382 €/urte

7.- Jaso duten prestazioa justifikatzen ez duten familia-unitateek ez dute berriz jasoko Gizarte Larrialdietarako Laguntza.

8.- Eskaera aurkezteko epea.

2017ko Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzeko epea otsailaren 1etik ekainaren 30era izango da.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzea irizpide horiek iragarkiak jarriz BAOn, Ediktu Oholean eta webgunean.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeita bian.

ALKATEA

Nire aurrean,
JARDUNEKO IDAZKARIA